

mmimms immms irons

MBB mi

Aurkezpena

Aldizkari honetan euskara batuari buruz idatzi nuenean, argi jarri nahi izan mien zenbaterainoko garrantzia duen gure euskararen etorrerarako gure arteko herrihizketak jasotzeak eta ikertzeak. Eta hau, ez da nik Euskal Herrian lehenengoz nire kaskar honetan ametsaldi argitsu batetan asmatutako zerbait edo.

Honen premia, lehenago ere sarri aldarrikatua izan da hor eta hemen gure artean. Eta hobetotxo edo txarrago, zenbaitek, lan gogor eginez, eskuartean erabilia ere bai. Agertu ere, gure artean izan ditugun orain arteko hizkuntzalari gehienek agertu izan dute horren ardura eta neurri batetan herriko euskarari buruzko ikerlanak egiten ibiliak ditugu.

Euskaltzaindiak berak ere, aspaldi izan du eta sarri hala adierazi du, euskara batua bide zuzenean martxan jartzeaz batera, ahozko euskalkian (herrietako euskara mintzatzeko mota desberdinak ditugu hauek) bilketa eta azterketa egiteko gogoia.

Azkue jakintsuaren egunetan hasi eta gaur egun arte, sarri erakutsi izan du Erakunde honek ardura bizia, herriko euskara mota desberdinetan murgildurik berauen barneko sena jasotzez. Hor ditugu

besterik beste, *Euskara* aldizkarian eta beste zenbait aldizkaritan argitara emandako lan ugariak.

Hala ere, behar bada, azkenaldi honetan biziago egin zaigu bilketa horren premia, Euskal Herriko gizarte-aldakuntzak biziagoak edo sakonagoak egin zaizkigulako edo. Euskara batua martxan jartzeak, berak ere, halako zerbait eskatzen digu, gure hizkuntzaren estandarizazio horrek hizkuntzaren barneko muina ito ez dezan, euskarak hiztunetan kokaturik hartuko baitu gerora ere bere bizi-arnasa.

Hori dela eta, ezdabaida antzuak eta aide utzirik, eta luzaroan hori eta hemen zenbait bilera eta lan-plangintza eginik, antolatu du Euskaltzaindiak lehen pausozat Debako dialektologiari buruzko ikastaroa.

Ikastaro horren bidez euskalkiei buruzko lanak nola egin eta nondik jokatu bilketa horiek egiterakoan aztertu nahi izan du, horretarako arlo horretan jakintsu eta trebe diren zenbait irakasleren esperimentziak eta aholkuak jasoz.

Arlo hau sakonetik jorrazteko asmotan dugu, ba, Euskaltzaindia. Eta, jakina, zabalik ditu atek honelako lanetan eskuartu nahi duen edonork. Euskalkiak aztertzen eta euskararen *Atlas Unguistikoa* egiten saiatuko den talde teknikoa osotu nahi da. Ba dugu, ba, gure arteko ezdabaida antzuak aide utzi eta non lan egin!

Dударик gabe, euskalkien azterketa honek aberastasuna ekarriko dio euskara batu estandarizatuari ere. Eginaz doakigun etxea apaintzeko eta dotoretzeko biderik egokiena izango dugu, nonbait.

lan honen premia larria

Beti izan badu ere, dudarik gabe, gaur egun batez ere ikaragarriko garrantzia du euskalkiak sakonetik ezagutzeak eta horretarako beharrezko diren azter-lan tekniko egokiak egiteak, urte gutxitan euskara bakarrik erabiltzen zen gizartetik erdararen menpeko den gizarte-girora aldatu gara eta.

Denok argi ikusten dugunez, Euskal Herri honetan, azken 100-50 urte hauetan sekulako aldaketak izan ditugu. Gure inguru osoa zeharo aldatua agiri zaigu. Eta hori ikusteko begiak zabaldu eta begiratu baino ez dugu. Lehen, baseri-arrantza bizitzak genituen gure bizimoduaren oinarri, edo erdi-oinarri, behintzat. Orain, bestetara, industria-

lizatze basati honetako etenduraren ondorioak jasan ezinda edo aurkitzen gara.

Eta, jakina, gizona gizarteko partaide eta atal izanik, ingurutako aldatze horiek barrutik aldatu digute gaurko euskaldunoi gure bizitza. Alperrekoa izango dugu, ba, amets gozoetan ibiltzea, nahi edo nahi ez egoera berriari aurpegi eman beharrean gara eta.

Dударик gabe, lehenago, askoz ere lasaiago eta baketsuago bizi ginen. Ongi dakigu, bai, hori gure bizitzako lehen urteak baserrietako txokoetan eginak ditugunok! Hura bai, giro baketsua eta lasaia! Gutariko zenbaitek, etxe inguruetatik urrutiratzeko aukerarik ere ez genuen eta nahiko genuen bertako eguneroko gauzak jakiteaz. Zertarako, izan ere gehiagokorik, borren premiari egon ez da? Eta hala, euskara bera ere, inguru horretako eguneroko harreman guztietako hizkuntza bakarria genuen. Orduan ez geneukan gure artean, orain jazo ohi den bezala, euskara ikasteko gau-eskoletara eta joan beharrik, eguneroko bizitzan bertan, etxean bertan amaren titiaz batera samur eta gozo ikasten genuen eta!

Eta gure euskara hori, etxeko edo hauzoko hizketa hori, inguru konkretu batetako hizketa zen. Bertako doinu eta beste berezitasunak eta guzti. Hori dela eta egiten zaigu hain atsegin eta eztsu, garai hartako atso-agureak jariatasunez euskaraz mintzatzen entzutea! Heuren barne-mundu osoa, sentimentuak eta guzti, euskara hutsez adierazten ikustea! Jariatasun eta berezkotasun horregatik iruditzen zaie gure arteko euskaldun berriei halakoen hizketa oso bizkorra!

Orain, oster, euskaldunok gizarte industrializatu berri honetan murgildurik aurkitzen garenez, gure euskara bera ere hainbatetan trakestu eta kutsatua dugu. Orain ez dugu inon, mendi-kateek sorturiko herri-barrutiko bakartade txokorik! Orain lan-postuetako beharrienen arabera, gaur hemen, bihar hor eta etzi han bizi beharrean aurkitzen gara. Egungo industrializazio basatiak gizona bere errotik atera eta munduan zehar ibiltzera bultzatu du. Horrek, ba, herritik kanpoko beste euskaldunekin harreman iraunkorrak edukitzera behartzen gaitu.

Lehenago ere izaten ziren, bai, euskalki desberdinez mintzatzen ziren euskaldunen artean harremanak, baina ez gaurkoak bezala xigarik eta iraunkorrak. Orduan aldi laburren batekoak edo izaten ziren: soldaduzkan, jaietan, oporretan, mendi-lanetan eta honelakoetan edo...

Eguneroko bizitza, ostera, norberaren jaioterri inguruan egiten zen gehien batetan.

Gaur egun, barriz, euskaldunok Euskal Herrian zehar elkafrekin nahasturik gabiltza. Eta horrek, euskaraz elkarrekin hitz egiterakoan, elkar ongi ulertzeko halako euskara elkartu bat erabiltzera behartzen gaitu. Denok dakigunez, halako harremanetan ez dugu, gehienetan, gure txokoko euskara erabiltzen. Euskara ulergarriago bat edo egiten saiatzen gara. Harreman hauetatik sortu da, sortu ere, oraingo euskaldunok elkarren arteko harremanetarako beharrezko ikusten dugun euskara batuaren premia.

Euskaltzaindiak euskara standard batua martxan jarri digu, bai, baina inolaz ere euskararen aberastasun guztien iturri diren hizketa berezi guzti horiek ahaztu gabe. Hori dela eta orain arlo hori aztertu eta euskalkien berezitasunak bildu nahi ditu, horrela gerokoei hizkuntz-altxor eder bat eskeintzeko eta euskara kaletar industrializatua jartortu, jantzi eta osatzeko.

Aldi luze batetan, nahiz euskara batua nahiz herriko euskara irakatsi ikastoletan eta, euskara traketsa eta urria izango dugu bazterretan. Eta horren errua ezin diegu, guztira behintzat, ez gurasoei, ez aderenoei, ez liburuei, ez eta euskarari berari leporatu.

Andereinoek euskararik jatorrena eta ederrena erabili arren, gurasoek jokararik zintzoena eta abertzaleena izan arren, eta liburuak ongi eta bikain argitaratuak baldin badira ere, hain handia denez erdararen eragipena, gure ume eta gaztetxoei gogor eta zail egingo zaie euskara gure gizarte erdaldundu honetan.

Geure buruok eskolatutzat ditugun euskaldunok ere, dakiguna jakin arren, dena erdaraz jaso ohi dugulako, zenbait gauza erdaratik euskarara atoan itzultzeko gorriak eta bost jasan behar izaten baditugu, nola eskatuko diegu hizkuntza oraindik finkatu eta heldu gabe duten umei euskara ongi eta zuzen egitea?

Hori dela eta gaurko euskara hein handi batetan kutsatua, erdaratua agiriko zaigu. Eta hau zein euskalkiz zein batueraz hitz egin! Horregatik dugu beharrezkoa erdararen eragipenik gutxien duten zaharren euskara jaso eta hizkuntz-ereduak ezartzeko erabiltzea. Orixe dugu, orain, lehen bait lehen egin nahi dena, euskalkiak jaso eta beraien berezitasunak aztertuz. :

Zer deln eta sortu ohi diren- diaDektoak
(gure kasuan: euskaDkiak)

Euskaldunok, aintzinatik eduki izan dugu gure harteko hizketa desberdinen kontzientzia. Joannes Etxeberri Sarakoak, Axularrek, Lar-ramendik eta beste hainbat eta hainbatek, direla zenbait mende aipatu zuten errealitate hau. Hori dela eta ez zaigu gaizki etorriko, fenomeno hori azaltzeko, hemen hizkuntzalarien eritzi batzu gaindiroki baldin bada ere, aipatzea, gure artean ere beste zenbait herrialdeetako gerta-kizun berbera jazo zaigu eta.

«Ez da inongo lurraldetan, hizkuntz-alor guztietan beti berdintsu mintzatzen den giza-elkarte Unguis tikorik ezagutzen. Gizon gehienak, egoera konkretuetako premien arabera, hizkuntza-bakarreko mintza-molde desberdinak erabiltzeko gai izan ohi dira» diosku Martinet os-petsuak (Cfr. Andre Martinet, *Mementos de Linguistica General*, Ma-drid, 1965, 182-183 orr.).

Eduki, ere, giza-elkarte bakoitzeko partaide guztiek ez dute hiz-kuntza erabiltzeko kapazitate berdina. Chonskyk, berak ere, bere teorian fenomenoaren multzokatzearen aldeko jokera agertzen baldin badu ere, onartu egiten du hizkuntza berdineko hiztunen arteko gramatika-moldeetarako desberdin izate hori. Eta baita ere, mezuaren interpre-tapen semantikoak hiztun bakoitzaren ezagupen horrek baldintzaturik egotea.

Beraz, hizkuntzen bizitzako esentzia, bere ibilera, gizarte horren barneko oinarrian dauden ekonomiak eta giza-taldeei loturik egotean datza. Ezin da, ba, hitzik egin herri csoko aintzinako *hizkuntza ba-karrari* buruz. Fikzio hutsa Htzateke, hizkuntza nazionala giza-talde eta giza-moetatatik kanpo aztertzea.

Errusoek, Txekoek, Jakobson-ek eta Martinet-en jarraitzaileek gar-ran tzi handia eman diote hizkuntzaren giza-inguruari eta hori azaltzen ahalegin handiak egin dituzte.

Hauen eritzi, hizkuntza bakoitzeko zatiketetan garrantzi eta zeri-kusi handia izan ohi du, elkarrekin harremanetan ari diren hiztunen jokarak, hau da, gizarte nagusi batetako partaide izateaz gainer a, in-guru, lanbide eta bizimodu berdintsuetan aritzeak, horrek baldintzatu izan baitu, hainbatetan, hizkuntz-sistemak nahasturik, mintza-talde des-berdinak sortzea.

Hizkuntzak sailkatzean garrantzi handia izango dute, ba, elkarrekin erlazionaturik aurkitzen diren hiztunen hizkuntz-harremanek: nahiz heuren arteko lotura sozial eta profesionalak, nahiz lurraldeko eta sendiko harremanak, edo eta denak gizatalde nagusi batetako partaide izateak sortzen dituenak, horrek baitakartza hiri-bizitzan hizkuntz-sistemien arteko nahasketak.

Esan dugunari loturik agiri zaigu dialektoen izate-arazoa. Schuchardt-ek, dialektua zer den galdetu ondoren, argi baino argiago frogatzen digu ez dela, inolaz ere, bizitzarekin zer-ikusirik ez zuen asma-kizun hutsa edo. Aurkitu ere, seksua, adina, kultura eta abar tarteko direla, Hizkuntza eta Dialektu ber-bereko gizataldean hainbat hizketa desberdin aurkitzen dugu.

Bestalde, baita ere argi adierazten digu Schuchardt-ek, hizkuntza-ren aldaketa hauek ez direla guk asmatuz ezarritako erregela-nagusiei jarraituz egiten, hiztun bakarren eragipenez baino. Aldaketok, pertsonen erabileraren ondorio izango ditugu eta hau nolako egoeretan aurkitu, halako aldaketa bereziak sortuko dira. Hala ere, berez giza-min-tzarena bakarra dugu mundu osoan, eta oso ugariak hizkuntzen arteko antzak.

Baina hau hala izan arren, hor ditugu begibistan baita ere hizkuntzen arteko sailkaketak eta hizkuntza bakoitzaren barneko aparteko hizketak. Bi errealitate hauek, elkarrekin korapildurik aztertzeak ditugu, hizkuntzen barneko muina ezagutzeko ate zuzenenak ditugu eta.

Jakina denez, nahiz eta hizkuntzek beraien barneko dinamika berezia izan, gizarte konkretu batzutan gorpuzten dira eta inguru-geografikoak eta baldintzaturik aurkitzen dira. Inguru desberdin hauen eragipenez sortu ohi dira dialektuak. Inguru desberdinek, ibilera historiko desberdina sortu izan dute eta hizkuntza berberaren barneko aldakuntza desberdina ekarri. Desberdintasun hau etendura egiteraino heltzen denean, hizkuntz-zatiketa sortu dela esan ohi da. Ikus, adibidez, gure ingurutako hizkuntza erromanikoen kasua: *Latinetik*, gaste-lera, frantsesa, italianoa, galego-portugesak, katalana, ...sortu dira. Hizkuntza moderno hauek, zenbaiten eritziz, oraindik latinaren dialektuak edo lirakeke.

Gure kasuan ez dugu halako etendura sakonik izan, baina bai elkarrengandik urrutiratze handia. Adibidez, oso zail egiten zaigu gaurko

bizkaitarroi Zuberoera ulertzea. Behar bada, katalandar bati erdara ulertzea beste zail. Hala ere denok euskara bakarria darabilgu.

Aurrerantzean, behar bada, zailago izango da halako desberdintasunak sortzea, gure arteko desberdintasun sozialak eta desagertuz joan zaizkigu eta. Lehenagoko eragozpenik handienak, (mendi-kateak, distantzia luzeak eta abar) orain desagertuak ditugu.

Euskalknak azferfzeco bideak

Gure artean ditugun euskalkien errealitatea aipatu eta iturburuak ikusi ondoren berauek sakonetik aztertzea komeni zaigu gure euskararen hezur-mamintze bide ditugunez. Euskara, hizkuntza bizia izanik, euskalkien bidez (subeuskalkien barneko hizketen bidez, zehatzago esanik) gorpuztu izan zaigu bazterretan. Hori dela eta teknika ego-kiak erabiliz, hizketa mota horiek jaso beharra dugu, gero lurralde desberdinetako antzak eta berezitasunak azpimarratuz joateko.

Premia hau ikusirik antolatu zuen Euskaltzaindiak Deban apirilaren 23tik 26ra egin zen dialektologiari buruzko ikastaroa. Bertan eskuartzeko aukera izan mien, eta benetan oso interesgarria izan zela aitortu behar!

Irakasle izan genituen hizkuntzalariek, bakoitza bere Lurralde (Katalunian eta Gaskunian) halako hizkuntz-bilketak egiten ibiliak zirenez, oso ikastaro praktikoa eskeini ziguten.

Batez ere guztiz atsegin egin zitzaidan Katalandarrek aurkeztutako lana. Izugarri egin dute Ian hango Lurraldetan! Osoa dute *Atlas linguistikoa* eta eginak beste zenbait Ian monografiko ere. Euskal Herrian, premia hain gorria izan arren, oraindik larru gorritan, ezer gutxi egin dugula, aurkitzen gar a.

Ikastaro hori, jendea halako lanak egitera bultzatzeko asmoz antolatua izan zen. Beste zenbait tokitan nola jokatu duten jakiteko aukera izan genuen. Lehen urratsa emana dugu, ba. Orain aurrera egitea baino ez zaigu falta! Noizko lortuko ote guk halako Ian bat burutzea? Izango ote dugu Erakunde publikoetan eta, horretarako beharrezko den laguntzarik?

Aipatutako ikastaro horretan zenbait mintzaldi jakingarri izan genituen. Hemen denen laburpenik ezin bildu eta interesgarriena iru-

ditu zitzaidanaren laburpena eskeiniko dizuet, halako lanak zer suposatzen duen ikus dezazuen. Jean Veny i Clar, Barcelonako Unibertsitateko dialektologia Saileko irakasleak emandakoa aukeratu dut, berak emandako aholkuak eta Ian egiteko proposamena jakingarriak ditugulako edo. Hain zuzen ondoko izenburua izan zuen mintzaldi horrek: *Dialektologi inkestari buruzko galdekizun behinenak*.

Hizkuntzalari onek, hizkuntzaren bizitzarako *Atlas Linguistikoa* (hau da hizkuntzari buruzko jakingarri nagusiak zehatz jasoteak) egiteak duen garrantzia frogatu nahi izan zigun, horretarako, orain arte munduan zehar egin diren lanak gogora ekarri eta egindako Atlas linguistiko garrantzitsuenak aipatuz. Gero halako Atlas bat egiterakoan kontutan hartu behar diren lau faseak azaldu zizkigun:

- 1.^a Galdeketaren prestakuntza eta tokiak aukeratzea.
- 2.^a Toki bakoitzean aurrez aukeratutako galderen erantzunak jasotzea.
- 3.^a Jasotako erantzunak mapetan ezartzea.
- 4.^a Bildutako materiala aztertu eta interpretapena egitea.

Nahiz eta honelako lan batetan lau fase hauek beharrezkoak izan, aparteko garrantzia eman zien lehen fase bid, hots enkesta gertatu eza hizkuntz-datuak bilketari. Dena hemen aditzera emateko lekurik ez, eta lehen fase biok egiteko behar den jokoaren gorabeherak eskeiniko dizkizuet.

Gaia errazago ulertzea emateko zatika zatika aztertuko dugu, Atlas linguistikoa egiterakoan nolako pausoak eman ohi diren azaltzen ahaleginduz.

1) Galdleketa:

Hau ..dugu lehen lana, Jendeari hizkuntzari buruzko informaketa eskatzera hurbildu aurretik, beharrezkoa dugu, zer galdetu, nola galdetu eta honelakoak argi edukitzea. Horregatik galdeketa aurrez zehatz gertatu beharra izango dugu. Horretarako jarraian jarriko ditugun puntuak kontutan ditugula jokatu beharko dugu, fase hau ondo egitetik sortzen baitira lanaren ondorio guztiak. Galdeketaren bidez hizkuntzaren informazio zehatza jaso ezik ez daukagu ikertzeko gai-rik. Galdeketa ongi egiteko, aurrez zenbait gauza kontutan harturik ekin beharko diogu:

- a) *Banaketa*: Hizkuntzaren arlo desberdinetako aspektuen inforzioa emango diguten galderak erabiliko dira. Hizkuntzaren barne-inguru osoa jaso behar da, lana ongi egkekotan. Ezin da ba beharrezko den ezer galdetu gabe utzi.

Horretarako ez da nahitaezkoa, hizkuntzaren barneko arlo horiek, fonetika, lesikoa, morfosintasia eta abar, banan banan sailkatuz aztertze.

Alvar-ek bi.multzotan jokatu behar dela uste du: aide batetik, *fonetika, doinua, lesikoa...* eta bestetik *azenua* lesikoa-rekin batera jasoz, berezkotasunez ager dadin.

Sintasiak eragozpen handiak ditu. Hori dela eta aparteko sail bat egin beharko da. Horretarako itzulpenak eta ere erabil daitezke. Alor hau dugu, zailtasun horregatik eta bariedade gutxiago eskeintzen duelako edo, hizkuntzetan gutxien aztertua. Behar bada, lan monografikoen bidez aztertu beharko da: berezko mintzaldi eta elkarrizketa grabatuak erabiliz edo.

- b) *Luzaera*: Galdeketaren luzaerari buruz, zera esan genezake: era askotakoak egin izan direla. Enkestarik luzeena Italiako Atlas egiteko erabilia dugu: 7,500 galderaz osotua. Behar bada halako lan batetarako luzeegia. Gehien erabiltzen direnak, 2.000/2.500 galderazkoak izaten dira.

Hizkuntza bakoitzaren berezitasunak eta hauetatik sorturiko mugak kontutan harturik zehaztu eta erabaki beharko da. Dena dela, bilketa ongi egiteko garrantzi handia izango du galderen zerrenda egoki egiteak. Ez, behar den baino gehiago, baina behar den guztia galdetu beharko da.

- c) *Ordena*: Galderen ordenak ere ba du bere garrantzia. Lehen eta behin ikertzaile eta informatzailearen artean giroa sortu behar da eta ezin izango da gauza zailetatik hasi. Informatzaileak aurretik ezagutu eta gogoko dituen arloetatik hasi beharko da, ba. Kontuz jokatu behar da, gauza errazak galdezterakoan ere, ongi egin ezik, adarra jotzen edo ari garela uste izan ez dezan.

Geroagoko ikerketa errazago egiteko, ordena semantikoa erabiliko da. Adibidez, *gorputzari* buruz galdetzean, eduki ohi diren gaisotasunak eta sendatzeko erabili ohi diren landaren izenak ere galdetuko. Honela, geroko lana errazteaz aparte berezkotasuna sortzen da.

Inoiz ez da informatzailea zorabiatuko, arlo gustuz desberdinetako galderak bata bestearen segidan eginaz: orain txorien izenak, gero laneko tresneriarenak, urrengoan etxekoak eta abar... Lesikoa beta ere, morfologiaz batera jaso behar da (hau da, kontestuan erabili ohi den bezala) hala zaintzen du esangura bizi osoa eta.

- d) *Aukeraketa*: Gehienetan baserri girorako eginak izan ohi dira, hangoak baitira informatzailerik onenak! Hori dela eta bertako tresneriari buruz edo galdetuz has daiteke. Galduz dihoazen tresnen izenak eta galdetuz hasi eskero informatzaileak bere jakituria azaltzeko gogoia senti dezake. Gainera, hala enkestaren zergatiak hobeki ulertzen ditu eta pozik erantzuten.

Galdera sorta egiterakoan, ezerezetik hasi beharrean, beste toki batzutan egindakoetatik has daiteke. Ez dago galdera hobeaz. Lanaren bukaeretan konturatzen den da, zer falta den eta zer den alperrik batua. Galdera sortak, poliki poliki osoturik joango den gidaria izan behar du. Luzarorako lana izaten da. As tiro eta prisarik gabe egin behar den lana.

Beste posibilitate bat ere ba da, galderak egin beharrean testu ezagun bat kontaeraztea. Adibidez, Seme galduaren parabola. Edo eta itzulpena erabiltzea. Modu hau ona litzateke sintasiarako baina gaurko metodoetatik urrutiraturik legoke.

- e) *Metodoak*: Galderak egiterakoan metodo asko erabili ohi dira. Hona hemen erabilienak:
- 1) *Idazkien bidez*. Hau da, izen zerrenda bat bidali informatzaileari eta berak emandako erantzunak idatzirik jaso. Interesgarria izan daiteke, informatzaile onak erabili ezkerro. Nahiko erabilia, joan zen mendean. Eragozpenik handiena, zehaztasun eza. Ez du fonetikarako balio.
 - 2) *Itzulpen bidez*: Kasu batzutan erabil daiteke. Sintasia aztertzerakoan ea metodo bakarra dugu. Baina atazoak ere baditu. Besterik beste, *kalkoak* sortzeko arriskua eta informatzaileak sarritan galdera ongi ez ulertzea. Oso zaila izaten da pertsona guztiz elebiduna aurkitzea.
 - 3) *Zeharrezko galderak*: perifrasiak, deskribapenak eta erabiliz jokatzea. Honek ere arrisku handi bat du, ikertzaileak berak larregi hitz egiteko arriskua eta hala informa-

- tzailerean eragipena sortzea. Entzuleak konturatu gabe ikertzailearen hizketa erabiltzera jo dezake, bere mintzaera jatorrizkoa baztertuz eta guzurrezko erantzunak emanez.
- 4) *Albumen bidez*: irudien eta grabaketen bidez jotzea. Ikertzailea ia isilik egon daiteke. Honela gauza konkretuak atera daitezke bakarrik edo eta kontaetak. Aditz formak eta jakiteko beharrezkoak dira elkarren arteko harremanak.

Ondorioa: Ez dago metodo bakarrik. Nahastean erabili ohi dira hemen aipatutakoak. Behar bada, *zharrezko galdera bidez jotzeak* eskeintzen ditu posibilitate onenak, baina ikertzaileak larregi hitz egin gabe jotatuz.

2) Tokiak eta pertsonak aukeratzea:

Galdeketak ongi eta zehatz gertatu ondoren, tokiak eta pertsonak aukeratu beharrean aurkitzen gara. Hau ere ezin da edonola egin. Arretaz jokatu beharra dago.

- a) *Tokiak aukeratzea*: Hasera batetan mapa baten bidez halako banaketa orokor bat egin genezake. Gero, hizkuntzaren ikerlanak berak eskatzen dituen beste zeinbait puntu jakingarri kontutan harturik, toki bereziak hautatuz joango gara. Hara nola, euskalkien mugetako tokiak, historian zehar aparteko eragipen bereziren bat izan dutenak, mendi tartekoak eta abar.

Ezin da aurrez esan zenbat toki aukeratu behar diren hizkuntza bakoitzaren eremuetarako. Aurreko datuak eta Lurraldearen beraren zabalera eta kontutan izanik egin beharko da. Katalanaren Atlas Linguistikoa egiteko 90/100 toki aukeratu ziren.

- b) *Pertsonak aukeratzea*: Honek ere garrantzi handia du eta ezin da edozein hartu informatzaile lanetarako. Halako Atlas bat egiteko, toki bakoitzean bizpauru aukeratuz nahiko izaten da. Dena dela, tokikoak izan behar dute. Soldaduzkarik egin gabeak. Ez eskolatuak, baina berez argiak direnak. Ahozkatzeko akats gabeak. 50 urtetik goragokoak.

Lan monografikoak egiterakoan hiru belaunaldiko informatzaileak erabiliko dira. Baina zenbat? Ez larregi ez gutxie-

gi. Adibidez, goizerako bat eta arratsalderako beste bat. Zein emakumeak zein gizakumeak. Arlo batzu emakumeak askozaz hobeto ezagutzen ditu: erlijio alorra, aintzinako jantziak...

Gizakume-emakumeen arteko hizketaren desberdintasuna bertatik agertzen den zerbait da. Emakumeak hizkuntza alorretan aldakorragoak izan ohi dira. Gizakumeak, ostera, aldagaitzagoak.

Honelako Ian baten errakasta informatzaile otiak aurkitzen datza. Horregatik arreta handiz ahalegindu beharko da jario-tasun eta jatortasun ugaritsuz mintzatzen direnak aukeratzen. Horretaz gainera, hitz egiteko gogotsu eskeiniak izan ezkerro, asti asko aurreratzen da eta alor gehiago aztertzen.

3) Tresneria:

Gaur egunez, asko aurreratu da honetan. Grabaketak magnetofoniaren bidez egin ohi dira. Tresna hau, ba, garrantzi handikoa dugu. Abantaila handiak ditu. Erantzunak behin eta berriro entzuteko aukera eskeintzen digu. Hori dela eta nahitaezko tresna dugu halako lanetan.

Normalki informatzaileak ez dira larritzen. Bestalde, lana zeharo arintzen du eta idazketa geroago egin daitekenez, asti asko aurreratzen da. Hala bildutako grabaketak, ongi artxibatzea komeni da. Metodo honek, ba, ikaragarritzko garrantzia du eta nahitaezko bihurtu zaigu.

Hala ere, ongi Ian egin behar da, sarritan hots batzu, zaratak edo alboan direlako edo bereiztu ezinak sor daiteke eta. Ez da toki zaratsuetan Ian egin behar. Tresna honek gaur egun ez du akatsik oso landua eta perfezionatua dugu eta.

Ondorioa

Ikusi izan duzunez, euskalkiak biltzeko egin nahi den plangintzak halako eraketa on bat egitea eskatzen digu. Ezin da henen, hala hola, bakoitzari gogora datorkionari jarraituz jokatu.

Euskaltzaindiak bultzatuz Ian sakon bat egin nahi da, horrela gure euskalkiak barne-barnetik jaso eta aztertzeko. Eta Ian hau hain

astuna eta luzea izango dugunez euskaldun guztion laguntza behar-ko du.

Honelako lanak egitea dugu, eta ez euskalkiren bat edo beste har-rokeriaz hizkuntz ofizialtzat hartzea, euskalkien aide Ian egiteko jokabiderik egokiena. Hala ere, euskalki hauek galduz joango zaizkigu, euskaldunok geure eguneroko bizitzako harremanetan elkarri ulertu ezinik edo alperkeriaz, erdara batura jotzen baldin badugu.

Euskarak ez du ez euskalkietan ez euskara batuan bere makaltasuna. Euskara inoiz galtzen baldin bada, gure erruz eta erdararen eragipenez galduko da.

Patxi Uribarren

Drakurri zazute... aKABMEL»
Drakurri-azi zazute «KARMEL»

«GURE **ALDIZKARIA**»

«**ZURE ERREBISTA***

4 A R i E l »

Urteko **eskupekoa**: 300 pfca.

Zuzenbidea: Karmen, 2

EI B AR-GIPUZKOA